



Oihana
nola zain

14



Azalpenak eta oharrak

Oihanaren zaintzeak oihanaren kudeatzea eskatzen du. Hiru irizpideren arabera kudeatzen da :

- bioaniztasuna zainduz
- ustiapen zuhurra begiratzuz
- baliatzaileen arteko konfliktuetan erdibideak bilatuz.

Ipar Euskal Herriari dagokionez, oihan komunak kudeaketa, ONF-en (Frantziako Oihanen Bulegoa) esku da. Hala da, adibidez, Baigorriko, Garaziko, Uztaritzeko, Oztibarreko edo Zuberoako sindikatuak. ONF-ek oihanalde bakoitzarentzat antolamendu proiektuak sortzen ditu gorago aipatu betebeharrak jarraikiz.

Alor teknikoetan sartu gabe, ikasleei oihanaldeak zaindu behar ditugula ulertarazi behar diegu, zeren eta desagertzeko zorian ezartzen ari baikara biztanle guztien orekarentzat beharrezkoa zaigun ondare naturala.

Nondik has

Hurbil ditugun jende batzuek oihanaren edo zuhaitzen inguruan lan egiten dute (paisaia apaintzaile, egurgile, oihanazain...). Haien eguneroko biziari interesatzen gara.

Haurrengandik entzun daitezkeen galdeak

Zertako zuhaitzak landa ? (zuhaitz landaketa egitasmo baten kariatara)

Zer egiten ahal dut munduko oihanen salbatzeko ?

Nola parte har oihanen eta zuhaitzen aldeko proiektu batean ?

ONF-eko langileen funtzioa zer da ?

Jarduera batzuk

Oihanaren kudeaketa ulertu : betebeharrak, zuhazti hautuzkoa, oihan mozte selektiboak...

Oihan tropikalaren geroaz euskarri guztietako dokumentuak bildu, sailkatu, ustiatu, elementu interesgarrienak atxikiz.

Oihan ibilaldi bat antolatu. Horretarako, betebeharren eta argibideen fitxa ikus.

Zuhaitzak landatu. Informazio notizien edo landatzeko argibideen irakurtzen trebatu (ikus mintegietako aldizkariak) edo berdin argibideak sortu eta idatzi, bakarrik edo taldeka.

ONF-eko teknikari batekin lan egin. Hurbileko oihanaldeaz ikerlan bat sortu, ezaugarri nagusiak identifikatuz eta oihan antolamendu planoak ikusiz.

Beha Euskal Herriko oihanen historiari, adibidez, oihan eremuen kudeaketa XVII. eta XVIII. mendeetan (ikus Manex Goihenetxeren *Histoire générale du Pays basque, Tome III*, Elkarlanean).

Ikasiaren finkatzeko jarduerak

Bildumak egin, argibide-notiziak idatzi, horma-irudiak antolatu.

Teknikari batekin mintzatu aitzin, galdeak ikasgelan prestatu.

Ikasle bakoitzak bere kaieran oharrak hartu.



14/1

14/2

14/3

14/4

14/5

ikaslearen fitxak

Jakintasunak

Mota guzietako dokumentuen erabiltzen ikasi.
 Dokumentazio batetik ondorioak atera.
 Ingurunearen aldaketetan, jendearen eraginari ohartu.
 Naturaren errespetatzen ikasi.

Iturriak

Histoire générale du Pays Basque, Tome III, 127. or., Manex Goyhenetche, Elkarlanean.

Oihana nola zain

Oihanaren kudeaketa zuhurtziarekin antolatu behar da. Zer xede nagusiri lotu behar den ez da argi. Alabaina, lan hori hainbat parametrori lotua da, hala nola : lurraldeari dagozkion ezaugarri ekonomikoei, nekazari ohiturei, desoihantzearen zergatiei, herritarren kulturari, oihan motei, eta abar... Hots, oihan bakoitzari bere kudeaketa propioa.

© MIFEN/De Joantho



Oihan epelen eta oihan borealen kudeaketa...

Oihanaren kudeatzerakoan, oreka bilatu behar dugu hiru alor hauetan :

- Bioaniztasuna begiratu (faunaren eta floraren aniztasuna).
- Oihanetik heldu zaizkigun mozkinak zuhurki baliatu.
- Oihanaren eta baliatzaileen arteko erdibideak bilatu.

Frantzian, oihan orrazdunek oihan hostodunak ordezkatzeko dituzte gero eta gehiago. Hori bioaniztasunaren kaltetan da. Gisa berean, oihanean zer mozten den ongi finkatu behar da,

ezenek eta aldian dena motz (lurzorua arrasean utziz), oihanaren birsorkuntza naturalaren segurtatzea baita helburua.

Hautuzko zuhaiztia (adibidez izei-pagadietan noiztenka erabilia den metodoa), erdibide ona dela iduri du errentagarritasun ekonomikoaren eta bioaniztasunaren arteko orekan.


Hautuzko zuhaiztia jokamolde honen ondorioa da : zein zuhaitz motz eta zein zuhaitz atxik hautatzen da, hiru irizpide hauen arabera :

- oihaneko leku batzuk bakandu edo argaldu birsorkuntzaren sustatzeko
- oihanaren errentagarritasuna bilatu (egurra edo zura saltzeko xedetan)
- faunaren eta landarediaren begiramena.

Oihan kudeaketari buruzko lehen dokumentua 1376koa da, nahiz lan mota hori bereziki XIX. mendetik aitzina den zabaldu. Gaur egun, eremu publikoko oihan guziek badute beren kudeaketa programa. Oihan pribatuetan aldiz, 25 ha-z goitikakoetan ere beharrezkoa da.

...eta oihan tropikaletan

Oihan tropikalen bioaniztasuna beste oihan ekosistemen bioaniztasuna baino aise aberatsagoa da. Tokiko populuek beren oihanen zuhurki ustiatzen badakite. Ohartuak dira aspaldidanik oihan tropikalaren birsorkuntzak garrantzia handia daukala etorkizuneko laborantzako lurren antolamenduan eta fenomeno natural horri behatzen dira. Bestalde, populu horiek badituzte beren beharrentzat gerizaturik dauzkaten lurraldeak, haietan fruitu, ehiza, sendabelar, eraikuntzarako ekaiak, etab... biltzen baitituzte. Zorritzarez, oihan zibilizazio horiek beren oihanarekin batera desagertzen ari dira.



© MIFEN/De Joantho

Oihan tropikalen salbatzeko, beren etsaietatik (garapenaren bidean diren herrien krisi ekonomikoa, Ipar-Hego komertzioaren desoreka, garapen demografikoa...) begiratu behar dira.



Esportatzen den zur tropikala munduko zuraren % 2 baizik ez da. Bizkitartean, tipia izanikan ere, esportazio hori desoihantze damugarri anitzen zioa da. Horregatik biziki inportantea da mendebaldeko jendeak uler dezan neurrian kontsumitzea hobe lukeela, energia behargarri xahutzeko orde. Bestalde, gero eta eko-label gehiago sortzen da. Horiei esker, erosleak jakiten ahal du zein diren naturaren errespetuan heldu diren oihaneko ekaia. Gainera, zertifikazio horiei esker, kantitatea baino, kalitatea lehenesten duten enpresek fama eta irudi ona erdiesten dute.

Oro har, gure mendebaldeko eskualdetan, oihanetako zuraren kalitatea goretsi nahiz ari gara eta ondorioz esportazioak mugatuz.

Beste aterabideetarik bat : herrialde tropikaletako jendeek oihaneko mozkinak bide ekologiko eta iraunkorrez ustiatzea. Oihanak probetxu interesgarriak eta iraunkorrak eskainiz geroz, hartarik bizi direnek oihanaren gerizatzeko gutizia izanen dute. Gainera, haien eskubideak errespetatuak balira, oihana berek kudea lezakete.

Eta zergatik ez adin guzietako zuhaitz espezie anitz bizi litezkeen zonaldeak antola ? Hala bioaniztasuna segurtatzen da, gisa guzietako oihan-mozkinak erdietsiz, gainera.


Bestalde, on liteke landuak diren zonaldeen artean ere oihanalde edo eremu handien babestea, gune horietan birsorkuntza berma dezagun.

Gune babestuak : parke nazionalak, biosferaren erreserbak

Parke nazionaletako edo erreserba naturalen oihanak ez dira beren baitako oihanak. Lehenago ustiatuak izan dira eta orain bilakaera naturala dute.


Bestalde badira biosferaren erreserba eremu handiak munduan gaildi, batzuen helburua oihanaren geriza delarik. Adibidez, Indonesiako Gunung Leuser-ko biosfera erreserba Sumatra uharteko oihan tropikalaren begiratzeko da.

Oihanaren kudeaketa




Oihanzainek oihan eremuen begiratzeko kudeaketa-programa gero eta gehiago sortzen dituzte. Programa horien arabera, zuhaitzak ez dituzte nola nahika mozten eta oihanaren etorkizuna gogoan daukate. Oihanaren eremua zatitzen dute eta kudeaketa zati bakoitzaren arabera eramaten.

Eskema honek adin guzietako zuhaitzez egin tantail edo zuhaztiak erakusten dizkigu : Oihan zati bakoitzean adin guzietako zuhaitzak izaten dira.



Eskema honetan, aldiz, oihana berdin zatitua da baina zati bakoitzean adin bereko zuhaitzez eginiko tantailak dira.



Oihanaren begiratzeko manamenduak

© MIFEN



Oihanpeko landareak eta zuhaitzak ez ditut andeatuko edo hondatuko bizidunak direlako.

© MIFEN



Animaliei azantzik egin gabe eta iziarazi gabe behatuko diet.

© De Joanho



Onddoak eta loreak hein batean baizik ez ditut bilduko.

© MIFEN



Oihanzainaren lana errespetatuko dut.

© MIFEN



Oihanean bilduko ditudan animalia xeheak errespetatuko ditut eta hartu ditudan tokian bizirik utziko.

© MIFEN



Haizu ez dena ez dut eginen :
 - surik ez dut eginen
 - zakurrik ez dut laxoan utziko
 - debekatuak diren oihanbideetan ez naiz ibiliko
 - hondakinik ez dut oihanean utziko.